

# Euskerarko

## "Aita-Gurea" dala-ta...

Guztiek dakite sekulako erderakada batez asten duguna otoitzik ederrena: "Aita-gurea" ... Gure elkar-izketan ez dugu iñoiz orrelako joskerarik erabiltzen. Ez dugu esaten: "aita gurea etorri da, seme zureak egin du, etab...; gure aita, zure semea, etab..., baizik.

Gauzen aurrera otoitzean, eta arako "...barka izkiguzu gure zorrak guk ere gure zordunei barkatzen diegun bezela" artan gelditu gaitzen. Tarteko gramatika-akets koskor guztiak alde batera utzi, eta ezarri dezagun gure somena (atensioa) "DIEGUN" adizki ortan, azpiagotik, ots, adierazpen edo exejesi aldetik begiratzeko.

Latiñez eta gerkeraz ikurtzen duana esaten al du izatez-eta-berez gure euskerako orrek? "...Sicut et nos dimittimus debitoribus nostris"... Au euskeraz jarri ezkeno aurre baño ez litzake: "gure zordunei guk barkatu bezela". Aditz oetik "nori"-a bakarrik ematen digute eta ez "zer"-a. Ots, "norbaiti" barkatzen zaiola esaten digute, eta norbait ori asko dirala; baño ez, zer eta zenbat barkatzen zaion. Ori textoingurutik (contexto) atera bear da.

Euskal-aditzak, berriz, bere justutasunaren justuaz, ezin dezake kizuna adierazi gabe utzi; naiz zuzenkakoa (directo) naiz zearkakoa izan kizun ori. Ori bakarrik ez gañera, kizunaren zenbatusunak ere ba-du bere ordezkaria aditzaren osatzalleetan.

Orain, bada, "Aita gure" -ko otoitz ortan "...gure zordunei barkatzen diegun bezela" daukagu. Zer da ori? Zer egiten diegu guk ere zordunei? :

# Euskaldunberri

- Mezedez, baña...enazazue itz orrez izendatu. Miñ damaida benetan! Iguñ-antza edo alako zerbait somatzen diot eta ezin dut irentsi! Euskera ikasten jo-ta-ke, ta "Euskaldunberri" izen ori entzuteak eztaikit ser ernetzen didan!

Napar "Euskaldun-berri" bat zan onela mintzatzen zitzeiguna Euskal-Batzarreko egun aietan. Mutil gazte jator ta gartsu benetan bere barne-miñ ura onen saminki lertu ziguna.

Etzitzaion arrazoi piska bat palta. Napar onek bezela euskera ikasten ain kementsuki diardutenek begirune aundiena sortu bear liguteke. Euskera amaren sabeletik dakigunok artuko ote izan genuan auek bezin gartsu euskera arlo au? Post ajola lemaiguke guri geienei bezelaxe! Ta zergatik gure begirune ta arnasa merezi duten oei miñ garratza damaien izen batez berezitu?

Ontarakoxe idaxten dut emen yazo au. Ezin al genezake, izan ere, "euskaldunberri" itz onen esanaia beste era batera adieraztera eman? Gizalegezko derizkiot.

Berak esandakoa gogoan jasotzen genula adierazi genion berealaxe, eta "Yakin" aldizkarian jakinaraziko genula. Onek agertu egin zigun -naparra izan!- baño beste askok barruan ixil josirik jasango dute izen onek sortzen dien miña! Jaso dezagun, bada, gogoan euskaldun oso ta garbi izan nai duten oen oarkizun au!

Iñaki Bastarrika o.i.m.